

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josu Garate Suinaga

*Eibar,
Gipuzkoa
(1975)*

Aurkibidea



Biografia



Eibartarra. Aita Elgetakoa zuen eta ama, berriz, Eibarkoa bertakoa. Hiru anai-arrebatan gazteena. 20 urte ingururekin Kezka Dantza Taldean hasi zen eta dantza munduari lotuta jarraitzen du. Arkitektura ikasketak egin zituen eta lanbide horretan jardun zuen dantza lanbide bihurtu zuen arte. Gaur egun Dantzan.eus proiektuan eta [Aiko Taldearekin](#) dihardu lanean. Horretaz gain, dantza taldeko zenbait kideren artean sortu zuten eMePebo5t musika taldean ere aritzen da, abeslari moduan. Zenbait musika tresna ere jotzen ditu: alboka, gitarra...

Zintak

EIB-644

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2015-01-21
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Altzibar, Maider

EIB-645

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2015-01-21
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

EIB-647

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2015-01-21
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. "eMePebo5t" taldearen sorrera

- **Erref:** EIB-644/002
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:01:44. **Bukatu:** 00:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Erdi kasualitatez sortu zen "eMePebo5t" taldea. Gauza on eta goxo gehienak sortzen diren bezala. Kataluniara dantza egitera joan ziren bidaia batean hainbat instrumentu eraman zituzten, zerbait jotzeko asmoz. Katalanek dantza bukatu eta gero kontzertu bat eskaini zuten beraientzat. Inauteri batzuetan katalanak hona etorri zirenean, dantza taldeko norbaitek afalostean zerbait jotzea proposatu zien.</p>

2. Erromeria giroko abestiak

- **Erref:** EIB-644/004
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Erromeria giroko abestiak jo zituen lehenengo saioan "eMePebo5t" taldeak. Gainera, afalosteko saio horretan jo zuten euren lehenengo bertsioa: euren kantu enblematikoa bihurtu den "Bizikletia kandau"; Europe taldearen 'The final countdown' kantaren bertsioa, hain zuzen ere.</p>

3. "eMePebo5t" taldeko kideak

- **Erref:** EIB-644/006
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Josu abeslaria da eta ukelelea jotzen du. Unaik soinua eta teklatua, Lukenek gitarra, Aiartek bateria eta Ekhik saxofoia eta haizezko hainbat instrumentu. Baxua taldekide guztien eskuetatik pasatzen den instrumentua da.</p>

4. Taldearen "bautizo ofiziala"

- **Erref:** EIB-644/008

- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:07:37. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Arrate eskubaloi taldeak kontaktatu zuen "eMePebo5t" taldearekin, prestatzen ari ziren ekimen batzuetan parte hartu eta kontzertu bat emateko. Hasieran ez zekiten zer esan, baina, azkenean, erronka onartu zuten.</p>

5. Kontzertuetan ondo pasatzea helburu

- **Erref:** EIB-644/010
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:12:04. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Ondo pasatzea da "eMePebo5t" taldekoen helburu nagusia kontzertu bat ematen dutenean; gainera, jendea disfrutatzen dagoela ikustean, asko pozten dira.</p>

6. Herri txikia vs. herri handia

- **Erref:** EIB-644/014
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:14:13. **Bukatu:** 00:17:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>"eMePebo5t" taldekoek bai herri txikietan eta bai herri handietan jaso dute gertutasuna. Baina, orduaren arabera, giroa desberdina izaten da.</p>

7. "Petroliua ateratzen dou haria edo ezer ez zeguan lekutik"

- **Erref:** EIB-644/016
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:17:59. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Publikoan giroa jartzea batzuetan ez da hain erraza izaten. Giroa lortzen ez denean, "eMePebo5t" taldekoak euren artean jolasten hasten dira, ondo pasatzeko helburuarekin.</p>

8. Belaunaldi saltoak "eMePebo5t" taldean

- **Erref:** EIB-644/018
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"eMePebo5t"-eko taldekideen artean belaunaldi saltoak daude eta hau igarri egiten dute; izan ere, jakintzak eta taldean egiten dituzten proposamenak ez dira berdinak izaten.

9. Kantu tradizionalak dutxan

- **Erref:** EIB-644/020
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:22:42. **Bukatu:** 00:24:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzako entseguak bukatu eta gero, dutxetan, beti kantatu izan dituzte 'Hiru gizon ilustre' eta beste milaka kantu. Horregatik, kantu horiek omentzeko asmoz, kontzertuetan kantatzen dituzte.

10. Errepertorio tradiziozional eta modernoa

- **Erref:** EIB-644/022
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Errepertorioa osatzeko orduan, taldean duten belaunaldi saltoek eragina dute. Beraiek ondo pasatzeko entzungo luketen musika jotzen dute.

11. Erromerietatik tabernetara

- **Erref:** EIB-644/030
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:38:32. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Umetan gurasoekin joaten zen erromeriak ikustera eta irteteko garaia iritsi zenean ere, bizi izan zituen erronomia horiek. Nagusitu ahala, jai giroa aldatu eta tabernetara joaten hasi ziren.

12. "Klarimostoa" eta garagardoa

- **Erref:** EIB-644/032
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:44:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Elgoibarrera 17-18rekin joaten hasi ziren. "Klarimostoa" eta garagardoak edaten zituzten. Gainera Txuri Beltz tabernara joaten ziren patata minak jatera. Momentu batean, bueltako trenean, lekuz kanpo sentitu eta Elgoibarko etaparekin bukatzeko unea iritsi zela sumatu zuen.

13. Parranda garaiak

- **Erref:** EIB-644/035
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:49:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Kuadrillakoak kalera ateratzen hasi zirenean, joko geletara joaten ziren. Gero Elgoibarrera joaten ziren garaia etorri zen. Gauetz irteteko sasoia iritsi zenean, Eibarren. Momentu batean Ermua modan jarri zen arren, batzuk Eibarri eusten gelditu ziren.</p>

14. Jai-giroan ere dantzazalea

- **Erref:** EIB-644/039
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:52:48. **Bukatu:** 00:53:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Jai giroan ere dantzazalea izan dela dio Josuk; baina edozein tabernatan ezin dantza egin, leku guztietan ez zutelako dantza egiteko musika jartzen. Taberna-giroko bi ibilbide desberdin aipatzen ditu.</p>

15. Euskararen erabilera

- **Erref:** EIB-644/047
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:02:58. **Bukatu:** 01:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Umetan euskaraz bakarrik hitz egiten zuen. Nerabezaroan eta institutu garaian gaztelerara jo zuen. Baina momentu batean buruari buelta batzuk eman zizkion eta, unibertsitatera salto egitean, euskarara itzuli zen. Lan munduan gaztelerara jo behar izan du, nahiz eta jakin lankideak euskara bazekiela.</p>

Transkripzioa

- Nik neuk neure inguru... hau da, egunero bizi... nere egunerokuan, zorionez izango da, baiña... euskeraz bizi dot egunerokua. Ointxe iñoiz baiño gehixau. Ba bai, bai, bueno, nik euskera, pixkat atzera joten badogu, nik be... hau da, nerabe instituto epokan-eta... Hau da, txikittan euskera bakarrik, erderia edo gaztelerara txarto jakin be eta berba ein be txarto. Eta... eta instituan, institutorako pauso hori izan zan, ba, kuadrillan konfiantzazko zirkuluan eta, erderara jotia. Bff... ez dakitt, luze joango leuke zegaittik, arrazoiak eta, eta igual ba beste momentu baten ingo dou / ingou/, e? Baiña ta akordatzen nok orduan COU zala, ba, etorri jakula personajen bat, ba, halako... ez dot esaten bronkia bota eskunik, baiña bai, pixkat kontzientzia sortu nahixan eta. Ez dakit ze kanpaiña ibiliko eben martxan. Ez dakit Eusko Jurlaritzatik o nundik zan. Eta hantxe zeoze pasau jatan, edo behintzat konturatu nitzan "ostras...". Ez dakitt, ba, ze pasatzen zan edo zegaittik in bihar genduan edo zer dala-ta gurasuekin-eta beti, etxian eta, etxe-giruan euskeraz eta kuadrilla, lagunak eta... Bueno, behintzat bueltatxo bat, halako zerbait emoten hasi najakon hari. Eta, kuriosamente, unibersidadera salto ein, gaiñera Arkitektura erderaz ein bihar zan, gazteleraz tokau jatan eittia, eta, ba, beti esaten da: "acción reacción". Igual izan leike, ezta? Oposiziñorik ondiok eta haundi axaua eta, orduan, ez "ointxe bai", ezta? Esaten dabe, hamendik kanpora mobitzen garanian, euskera gehixau eitten dogula -edo eitten dabela euskaldunak-hamendik kanpo, ba, igarri deixen zelan euskaldunak garan, ba, etxian baiño. Eta, ez dakit, tokau jatan kuadrilla euskalduna inguruan. Eta nik uste dot danon... danok... danon esperientzia antzerakua izan zala. Nik... begittantzen jata danok gentozela igual normalian erderaz eittetik, gazteleraz kuadrillan eta lagunekin eta geure artian sortu zan... sortu zan kodigua, komunikaziñorako, euskalduna izan. Eta, gaiñera, Arkitekturan konkretamente akordatzen naiz bastante potentia zala euskal komunidadia eta euskal girua eta... Eta handitxik sortu zan gero, ba, pixkanaka nere egunerokua eta... Eta bueno. Biharra ointxe arte Bilbon ein dot eta Bilbo, ba, bueno, beste mundu bat da. Lana be tokau jata eraikuntza eta arkitektura [...] oso erdalduna da. Eta kuriosua da euskaldunekin be topo eitten dozunian, relaziñua biharrerako eta segun ze asunto tratatzeko, ba, gaztelerara pasatzen dala, erderara pasatzen dala. Nahiz eta jakin gero, ba, tragotxo bat edo ez dakit ze konfiantzazko zeoze, beste gauzatxo bat komentatzeko, ba, euskeraz, ezta? Baiña...

16. Eibartik kanpo, zein euskara?

- **Erref:** EIB-645/005
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Ekhik kontatzen du garai batean tolosar zenbaitekin batera joaten zirela eskiatzera, eta Eibarko euskarari egindako kritikak gogoratzen ditu.</p>

17. Eibarko euskara Eibartik kanpo

- **Erref:** EIB-645/007
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Josuk Eibarko euskara erabiltzen du gainontzeko herrietan ere. Ekhik arazoak izan zituen hasiera batean, neska-laguna iruindarra duelako, baina egun euskalkia erabiltzen du neskekin ere.</p>

Transkripzioa

- Josu: Ba bai, bai. Bai, bai, bai, bai. Iñoiz... izan be iñoiz brometan edo, batez be hamentxe inguruan eta igual Bizkaixa gehixau tokau jaku, eta, orduan, Gipuzkoa, ba, Donostia aldia-ta ikutzen izan dogun halakotan, ba, joko edo txiste pixkat... ez dakit danak, baten bat euki dogu haserretu jakun baten bat edo, baiña, ba bueno, broma-giruan, ez? Iñungo intenziño txarrik barik, baiña, bueno, ba, hartu-emon horretan, ba, euskerian gaiñian, ba, pixkat igual exajerau be berbeta, ezta? Gipuzkoako... ez dakit zelan exajeratzen dan edo ez neuke oin ez nitzake gai izango, baiña euskerian gaiñeko halako adar-jotze... pixkat, ezta? Ba geure bizkaiera edo Eibarko hau, ba, gehixau da Bizkaiko usaiñetik gehixau daka, ezta? Eta...eta bai. Baiña gure oiñarrizko jarduna eibartarreraz edo ointxe dihardugun moduko hauxe izaten da. - Ta ez dozue arazorik euki edo zuek ez dozue hor zuen buruakin problemarik euki, edo erabakirik hartu bihar "holan in bihar dogu" edo... berez urten dan kontua da? edo kanpotik be iñok ez detzue esan...? - Ekhi: Ez, ez, ez ez, hori berez urtzen dok eta holan izan dok. Neri ointxe pasau jatana izan dok nik neskia ointxe Iruñakua jaukat. Eta hasieran, berakin komunikatzeko, asko jotez najuan euskera batura. Bai whatsappez eta bai berbetan. Ze uste najuan ez zestala ulertuko. Eta, bueno, ba ya denporatxua batera ta azkenian ba... berak esaten jestak, gaiñera: "Baiña eidazu zuk itten dozun moduan, neri ez idazu

ein..." eske, gaiñera, urtetzen jata... urtetzen jata super artifiziala. Osea, ez naiz ni, ez dakit zelan esplikau, ez? Eta, klaro, Iruñan be bai beste errealtate bat dao eta, bueno, ba, tabernetara jua eta zeoze eskatu eta ulertu ez eta, orduan, ba, batura jotzen dozu... baiña holako kasuetan, besterik ez. Nik nere buruakin eta kanpora juatiakin ez dakat holan txikitasuna, ez dot txikitasunik sentitzen eibarreraz berba eittiagaittik. - Eta idatzi? - Ekhi: Nere bloga irakurri dozu! Idatzi be gauza... ba lanerako-eta sekula ein dittutenian euskeraz, ba, efektibamente, euskera batuan. Baiña, bestela, holan, blogian edo whatsappian edo, ba hori, eibarreraz edo. Saiatzen gara Eibarko euskaria idazten, ez dakit korrektua dan edo ez dan korrektua. Eta... Baiña hori bai, idatzi... holan nahaste-borraste bat urtetzen jata neri. Ez dakit. Hasten naiz idazten eibarreraz, gero segitzen dot batuan, gero bueltatzen naiz... esaten dot: "zer nabil batuan idazten?" eta... Holako zeoze. - Baiña lehentasuna euskalkixari emoten detsazu? - Ekhi: Bai, bai, hasieran bai behintzat. Eta gero, ba, erreztasunagaittik: bizitza guztia be bai, ikastolan-eta, euskera batuan idatzi juau. Orduan, nahi barik pasatzen nok euskera batuan idaztera. Osea, buruan euskera batuan pentsatzera.

18. Euskalkia vs. euskara batua

- **Erref:** EIB-645/009
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Ekhiri euskalkiak gertutasuna ematen dio, baita hitanoak ere. Euskara batuarekin, aldiz, ez du inongo gertutasunik sentitzen, artifiziala egiten zaio. Josuk hasiera batean euskalkia baztertu eta batuari heldu bazion ere, beranduago alderantzizko bidea egin du eta euskalkia sartu du bere bizitzako alderdi gehienetan.</p>

Transkripzioa

- Ekhi: Nik ute juat baietz, batek gertutasuna ematen jestak, eta bestiak ez, bestia zeoze artifiziala dan moduan. Eta hitanuakin berdiña pasatzen jatak, eee... hitanuan berba itten dotenian, gertutasun hori sentitzen juat beste pertsonarekiko, ez? Eta... ba, hori, ba, euskalkixakin moduan. Baiña, bueno, hitano batua, ez jakixat /etxakixat/, Goenkalen bakarrik edo Songokun bakarrik entzuten juat, osea ke...

- Josu: Bai, ez... nere... neri, bueno, lehen zeoze aurreratu juat ee... ba ikastolan euskera batua, dana... berbetia lagunekin-eta nik esango nuke eibartarreraz edo, ondiok ez dakak halako kontzientzia espezialik eta akordau be ez nok itten, baiña eibartarrera edo etxeko euskaria izango zuan. Gero ya kontzientzia pixkatekin eta... Bai akordatzen nok hoixe hamendik kanpora-eta euskeraz eta Zarautzen eta ez dakit zer, edo Donostian, edo ba... ba batua, gipuzkera... Bueno, guretako batua gipuzkera dok, orduan, ba, hoixe, ezta? aditzak be bai eta... Eta gero, ba, behin unibersidadia eta berriro... unibersidade epokan-eta be... bai, ze [...] zittuan Irun, Hondarribi, Errenteri inguruko, holan, kuadrillak batez be eta haretzekin be akordatzen nok euskera batua, gipuzkera... bueno, hoixe,

hau da, neuria berezko ez neban euskeria. Eta gero, baiña ya berriro be neure inguruan lagunekin eta berriro pixkat, ba, euskeria berreskuratu edo naturaltasun batekin berbetan hasi nintzanian, ba, epoka batetik aurrera – eta, gaiñera, esango neuke igual ba, hoixe, era digital honekin-edo bat eitten dabela gutxi gorabehera-, ba, aldaketa ixa... osea, totala izan da, ze batueraz ez berba eta idatzi be gitxi apenas eitten dot eta bai idatzizko eta ahozko jarduna euskalkixan edo eibartarreraz-edo eitten dot. Eta batura jo bihar badot, ahozkotasunian ez hainbeste, baiña, idatziz, esfuertzua in bihar dot batuaz idazteko. Eta batuaz hasi eta ez banago kontzientziauta batuaz doiala hasi ta amaittu arte, bidian galtzen banaiz telefonua jo dabelako edo, "ostra!" derrepente ta gero leitzen hasi berriro goittik behera ta eta bixen nahasketa kurioso bat sortzen da. Eta batez be, ba, batua ibiltzen dot oin, ba, bueno, neure biharrerako, ba, ointxe arte, oin dala gitxira arte, gaztelerazkoa izan dalako. Gazteleraz, eta orduan ba hor... gazteleraz, bestela ez zeuan beste aukerarik. Eta oin berriro, ba, bueno lanez arkitektura mundua-eta aparkauta laga dotenetik eta web... dantzan.eus-en lanian nabilenetik, ba, hor berriro kolpe ein bihar izan dotsat euskera batuari eta, egixa esan, nekan bastante, konturatu naiz, ba, ,ueno, lehen gure aittak-eta esaten ebenian "nere epokan, hori, hango kapitala, ez dakit ze zan eta oin kanbixau in dabe", ba topau nok, euskera batua, gramatikari dagokixonez-eta, ba, gauza batzuek kanbixau dirala. [Esaten dotsat], Euskaltzaindian araei ez dotset kasorik ein azkenengo 20 urtian eta, bueno, ba, bai, gauzatxo batzuek kanbixatzen dira eta... ostras! Eta euskara batuaz ikasten nabil barriro be euskera batuaz idazten. Zelan bestia, ba, euskerazkuak edo Eibarko, osea, esan nahi dot, eibartarrera- edo, ba, bueno, badare halako kodigo batzuek edo, baiña ofizial zelan idatzi bihar dan eta eta hainbeste pixkat... ez dot sekulan argi ikusi, ezta? Enrikekin, gure Enrike, bueno, Enrike Izagirrekin –danok ezautzen dogu-, ba, haretxekin pixkat, haretxi ikusten dotsat zelan eskribitzen daben eta, ba, bueno, ba, erreferentzia moduan ibiltzen ahalegintzen naiz, ezta? Baiña konturatzen naiz askotan ez dotela... ez natorrela bat berak be idazten daben era horrekin, edo, edo bueno.

19. Euskalkian idaztean, eroso?

- **Erref:** EIB-645/011
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:17:03. **Bukatu:** 00:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Ekhik bi hizkerak, bai batua bai euskalkia, nahastu egiten dituela dio idazteko garaian. Josuk naturaltasunez jaso du euskalkian idaztearen tradizioa, eta hortaz, ez zaio kosta egiten hala idaztea.

20. Ekhiri egindako elkarrizketa

- **Erref:** EIB-645/012
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:21:12. **Bukatu:** 00:22:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Ekhik kontatzen du behin elkarrizketa baterako galdera batzuk idatziz erantzun, eta bere erantzunak Eibarko euskarara ekarri zituztela.</p>

21. Hitanoa berreskuratu nahi izan duzue? II

- **Erref:** EIB-645/018
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:27:43. **Bukatu:** 00:31:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Josuk etxean entzun izan du hitanoa, batez ere ama eta izeben artean. Ondoren, lagunen artean hiketa erabiltzen hasi ziren, naturaltasunez jardutera iritsi arte.</p>

22. "Erregistro baten falta dugu"

- **Erref:** EIB-645/019
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Josuren iritziz erregistroa galdu da, hiztunen arabera erregistroa moldatzeko ohiturarik ez dagoela dio, esaterako, hitanoaren erabileran.</p>

23. Eibarko hitanoa berreskuratuko al da?

- **Erref:** EIB-645/021
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:39:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa berreskuratzea nahi du bikoteak, ematen duen gertutasuna dela eta. Josuren iritziz, belaunaldien artean aldaketa bat eman da euskararen erabilerari dagokionez.</p>

24. "Euskara gehiago erabiltzen da Eibarren"

- **Erref:** EIB-645/023
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:39:46. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Ekhik inguruan euskara gehiago egiten dela nabaritu du.</p>

25. Dantza taldeko ikasleen hizkuntza: gaztelania

- **Erref:** EIB-645/025
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:40:56. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Ekhik dio ikasleek erabiltzen duten hizkuntza nagusia gaztelania dela, batez ere mutilen artean. Josuk, aldiz, ez du nesken eta mutilen artean bereizketarik ikusten hizkuntzari dagokionez. Ikasleek irakasleei gaztelaniaz erantzuteak kezkatzen du Josu.</p>

26. Ikasleak irakasleari gaztelaniaz

- **Erref:** EIB-645/026
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Josu kezkatuta dago ikasle zenbaitek irakasleari gaztelaniaz hitz egiteko ohitura hartu dutelako, euskaraz jakin arren.</p>

27. Kezka Dantza Taldearekin lehenengo harremanak

- **Erref:** EIB-647/001
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Umetan hasi zen Kezka Dantza Taldean. Eibarko ume gehienak ibiltzen ziren bertan. Urtetxo batzuk egin zituen, baina Kezka lokal barik geratu zenean, etenaldia egon zen eta laga egin zuen. 15 urtetik aurrera gustuko zituen zaletasunak probatzen hasi zen, eta 20 urte ingururekin Kezka Dantza Taldera itzuli zen.

28. Kezka Dantza Taldean eta proiektu gehiagotan, gogotsu

- **Erref:** EIB-647/002
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:02:52. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

20 urte ingururekin gogotsu sartu zen Kezka Dantza Taldean, eta bertakoek ere etxeko bezala hartu omen zuten. Hasieran Eibarren, baina berehala Elgoibarko Haritz Dantza Taldearekin ere harremanetan hasi zen eta baita Debako Taldearekin ere. Eta geroago baita Donostiako proiektu batean ere, Urbeltzekin.

29. Dantza lanbide bihurtu du

- **Erref:** EIB-647/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Lehen arkitektoa zen ofizioz eta dantzaria afizioz. Baina ia 20 urteren buruan, buelta eman dio horri eta dantza bihurtu du lanbide. Alde batetik, Dantzan.eus

proiektuan lan egiten du eta, bestetik, Aiko Taldearekin ere badihardu lanean, dantzan eta irakasten. Dantza tradizionalari eskaintzen diote denbora gehien.

30. Dantzari duintasuna emateko bidean

- **Erref:** EIB-647/005
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Jendeari bitxia egin izan zaio arkitektoa eta dantzaria izatea. Dantzari, eta batez ere "tradizional" adjektiboa jarrita, ez zaio balorerik eman izan eta oraindik ere zaila izaten da folklorismotik bereiztea. Adibide gisa, bertsolaritzari eman zaiola duintasuna dio, baina dantzari oraindik ez. Lehenengo norberak sinistu behar du egiten duenean, eta berak bide hori egin du.

31. Duintasuna lortzeko bidean, aldamenekoei begira

- **Erref:** EIB-647/007
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzari duintasuna emateko bidean, dantzaren inguruko hausnarketak beharrezko ikusten ditu: gizartean ze funtzio duen, jendearen harrera, herri batean edo bestean nola ikusten den... Azken urteetan kanpoko herrialdeetan egiten denari inbidiaz begiratu izan diotela dio. Ezpalak jaialdiari esker izaten da kanpoken berri jakiteko aukera. Bertsolaritzak lortu duen duintasunari ere inbidiaz begiratzen diotela dio.

32. Dantzarekiko ikuspegi aldaketa Eibarren

- **Erref:** EIB-647/008
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:11:04. **Bukatu:** 00:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Eibarren dantzarekiko ikuspegi aldatu egin da azken urteetan. Batzuek faltan botatzen ei dute garai bateko Euskal Jaiko giroa, baina ordukoa garai hartako girora egokitutakoa zela uste du, eta aldaketa beharra zegoela. Tradizionalki jasotakoa gaur egun nola plazaratu pentsatu behar da.

33. Jendeak ikuskizunetarako joerarik ez; arazoa hezkuntzan

- **Erref:** EIB-647/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

<p>Europar horretarako ohitura gehiago dagoen arren, hemen asko kostatzen zaio jendeari ikuskizunetara joatea. Ekitaldia moda bihurtzen denean bakarrik izaten du arrakasta, Eibarko Antzerki Jardunaldiekin gertatzen den antzera. Arazoa hezkuntzatik datorrela uste du, dantza edo musika bezalako arloak jorratzeko hezkuntza paralelo bat eraman behar izaten delako. Eta hezkuntza horrekin ere ez dago guztiz ados, norbere burua erakusteko hezten duelako jendea, ez besteenak ikusteko edo besteek egiten dutenarekin gozatzeko.</p>

Transkripzioa

Nik uste dot, bai plazan edo bai eszenarixora eruaten dounian be, ba... arte... arte eszenikuak izan edo ez, baiña, ba antzerkixakin edo beste batzuekin alderauta igual hartu-emon gitxien edo, edo ikusle gitxien jasotzen dabena izango dala. Bai. Ba Coliseuan ikusten dogu ze ekartzen dan ta... Eta beste batzuetara be jendia hurreratzia kostatzen da, ez dakagu ohitturarik. Ba igual Europar beste ohitura gehixau dake, ba, teatrorra juateko, edo ikuskizunetara edo. Hamen kostatzen jaku / kostatzeaku/, ez bada, ez badakagu, ez bodogu modan jartzen. Ba Eibarren teatro jardunaldixak dian moduan. Ta, orduan, jardunaldixetara juaten gara, baiña gero hortik aparte ya ez, ze modan dau horretxetara juatia, gustau edo ez gustau, baiña modan dau. Azkenian akto sozial bihurtzen da. Eta dantziakin be antzerako zezoer pasatzen da. Eta... eta arazua nun datorren? Bueno, ba, hasteko, arazo haundi bat dator -nik uste dot- hezkuntzatik. Hezkuntzan, hezkuntzan beste garrantzi haundixa emoten jakue ba beste... beste edozein disziplina, baiña gorputz-adierazpenak eta, ba, ba, bueno, ez dira lantzen. Edo marginalki sartzen da: gorputz-adierazpenak ba mugatzen dia normalian gorputz-heziketa danera, ginasia ta kirolak eta... Eta, orduan, ba, beste hoiiek... Eta, inkluso, ba, musikak eta be bai, ba, bueno, ba hezkuntza paralelo bat eruan bihar dozu. Eta, orduan, ba, ez dakau ohitturarik. Eta hezkuntza paralelo horretan be ni oso kritiko naiz -geure buruetatik hasitta, e!- hezitzen doulako geure burua erakusteko, baiña ez bestien buruak ikusteko eta ikasteko. Orduan nahi izaten dogu geure burua erakutsi, baiña gero ez gara gai ondokuan burua ikustera juateko, edo ze itten ete daben edo zelan itten daben edo. Eta orduan... Baiña ez juatiarren edo kunplitziarren, baizik hor be gozamina topatzeko. Eta, bueno, ba, ez gara ohittu, ez gaittu ohittu hor gozatzen, ba, ez gaittuen ohittu moduan seguramente, ba, ez dakit zer quadro moderno gozatzen. Ezta? Ez dakagu... Ohittura kontuak dira. Pixkat... Ohittura eta heziketa kontuak dira. Eta arte mundua [...] badao... ba ez daka heziketarik, ez da ohitzen. Ez da hezten edo ohitzen edo ez dakit zelan esplikau. Eta, bueno, anai-arreba txikixena, dantza, eta dantza tradizionala baldin bada, ba, oindiok eta... ba ez dakit zelan esan, baiña, ba, burruka gehixuau ein bihar dogu guk geure burua erakusteko. Baiña, bueno,

azkenian funtzionatzen badau, egingo dau aurrera, euskeriak moduan. Hizkuntzak eta eibartarrak eta... Hau da, funtzionatzen dau, balio baldin badau zer bat transmititzeko, goatzeko eta gozarazteko, ba, eingo dau aurrera.

34. Mutil falta Kezka Dantza Taldean

- **Erref:** EIB-647/011
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Beti egon izan da mutilen falta Kezka Dantza Taldean. Azken urteetan Mallabitik etorri zaizkie mutil gazteak taldera. Azkenengo etorri izan diren mutilak, gainera, adin batetik aurrerakoak izan ei dira, kontzientziaz, dantza gustuko dutelako etorritakoak.</p>

Transkripzioa

- Mutilen falta... gero dantzak, be-beste...
- [...] izango da, ez?
- E?
- Mutilen faltia ez da izango falta historikua?
- Bai... bai. Bai, bai, bai, bai bai. Hori, hori historikua da. Ni akordatzeko... ni akordatzen naiz, ni hasi ta handik urte gitxitara, lehenengo hamar urtian, ixa mutilen releborik ez dala izan Kezkan. Osea, azkenengua zeu, Ekhi, eta... Aiert.
- Ekhi: Aiert, gero... gu eta..., osea ni, gero Ander Fernandez...
- Eta Anderren kasua, bai... hoixe, pixkat... ba, ba kuriosua esan daigun, ze emoten eban ez ebala jarraituko ta geratu zan eta... Eta....
- Eta gero ya Mallabi.
- Bai, eta azkenengo refuerzua, azkenengo... ointxe sei urte edo, ba...
- Estranjeruak fitxatzen dozuez?
- Bai, bai, estranjeruak, estranjeruak. Eta hori kuriosua izan da, ze azkenengo urtietako aportaziño... mutiletako aportaziño gehixenak, danak ez esatiarren -ba, bueno, ba Egoitz eta bi, bi dakaguz, hirugarrenak laga eban-, gehixenak izan dira behin edade batetik aurrerako gaztiak, hamazazpi-hamazortzi, hamazortzi urtetik aurrerako gaztiak. Mallabittarrak eta... eta nausixauak be bai, e! Bueno, gero igual laga ein izan dabe, ba behin edade batetik aurrera be bai, ba, bueno, gauza asko batzen dialako, baiña... Hementxe...
- Ekhi: Asier.
- [Biñaspe] eta honek etorri zian, Joseba Aranzabal eta... Eta... bai, bueno, bueno, gero zeretik, Harkaitz Urreta oin lagata dakagu, guregana behintzat aspaldixan ez da etorri; Arrate egunian etortzen jaku, baiña... Mutiletan relebuak behin edade batetik aurrera etorri dira, hau da, ya personiak konzienzia dakanian benetan nahi dabela, gustatzen jakolako, iñork agindu barik, eta... ba hori, hori... bueno, hori inportantia da, ikusten doulako benetan, ba, badaola hor zer bat, hazitxon bat edo. Eta, orduan, ba, atiak beti zabalik eukitzia eta jakitzia, gaiñera, hortxe atiak zabalik dabela, ba hori, hori pozgarrixa da, gure partetik pozgarrixa da.

35. Neskek eta mutilek ibilbide desberdina Kezka Dantza Taldean

- **Erref:** EIB-647/012
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Dantza taldean nesken eta mutilen ibilbidea desberdina izan ohi da. Neskak dantza eskolatik igotzen dira nagusien taldera 15 urte ingururekin eta askok urte gutxiren buruan laga egiten dute. Mutilak, berriz, nagusiagotan sartzen dira, kontzientziaz, eta denbora gehiago irauten dute normalean. Dantza laga dutenekin harremanetan segitzen ahalegintzen dira eta ekitaldi zehatz batzuetara gonbidatzen dituzte.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com